

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ODOL EMATEA

Iraileko zita, bihar
Hilero bezala, odola emateko aukera izango da bihar, ambulategian. Hernaniko Odol Emaileen eskutik, arratsaldeko 18:00-etatik iluntzeko 20:30etara eman ahal izango da. Organu-emaile egiteko aukera ere izango da. ■

■ HERNANI LATSUNBEBERRI-MARIELUTSEKO FESTAK

Sagardoaren txinparta eta pintxo artean erreleboa, hurrengo auzoari

Eguerdiko 14:00etan emango zaio bukaera festari; gozatzeko aukera ere izango da, aurretik.

ASTE BURU osoa festa giroan igaro ondoren, agur esateko garaia iritsi zaie Latsunberrri-Marielutseko auzotarrei ere. Gaur izango dute azkeneko eguna, ekintzaz betea, beti bezala.

Goizeko 11:00etan hasiko dute eguna, patata tortila txapelketarekin. Edonork hartu ahal izango du parte, etxetik ekarritako tortillarekin. Baldintza bakarria jarri dute: arraultzak, patata eta tipula besterik ezin izango da erabili tortila egiteko.

Hainbat sari izango dira: bi afari Latxunbe tabernan; beste bi, Tranbia tabernan; eta azkeneko biak, Zumardi jate-txean.

Ordu berean hasiko dira, baita ere, Iturritxo Elkarte VII. Esku Pelota txapelketako finalak eta talo tailerra. Bigarren hau Iturritxo Elkartearen lokalean egingo dute, 8 urtetik gorako gaztetxoekin.

Sagardo dastaketa, eguna borobiltzeko

Eguerdiko 12:00ak aldera, epaile ospetsua gerturatuko da balio anitzeko pistara, eta patata tortila guztiak dastatu ondoren, berak erabakiko du zeintzuk izango diren sari-dunak. Bertsolarien erritmora egingo du hori, gainera.

Segidan hasiko da sagardo dastaketa, eguna borobilduko duena. Denera, 11 sagardotegik hartuko dute parte: Altxueta, Artola, Rufino, Akarregi, Alberro, Elorrabi, Otsua-enea, Gurutzeta, Zelaia, Oialume Zar eta Itxas Buru.

Jatekoak ere ez dira fal-



Ederki pasa zuten etxeko gaztetxoek apar festan.

tako, eta noski, ezta musikarik ere. Bertan egongo baitira trikitilariak giroa jartzen, 14:00etan azken suziria entzun arte. ■

GAURKO EGITARAUA

- **11:00-12:00**, Patata tortilla txapelketa. Erabili daitezkeen osagaiak: arraultzak, patata eta tipula. Balio anitzeko pistako txoznara eraman.
- **11:00-12:30**, Iturritxo Elkarte VII. Esku pelota txapelketako finalak.
- **11:00-13:00**, Talo tailerra Iturritxo Elkartearen (8 urtetik gorakoentzat).
- **12:00-12:30**, Patata tortilla txapelketako sariak.
- **12:00**, Bertsolariak.
- **12:30-13:30**, Trikitilariak.
- **12:30-13:30**, Sagardo dastaketa. 11 sagardo aukeran.
- **14:00**, Festen bukaerako suziria.



Tokan aritu ziren gazte nahiz helduak arratsaldean.

■ HERNANI CD HERNANI

Emakumezkoak, gaurkoan

Atzo gizonetzkoen txanda izan ondoren, emakumezkoen bi lagunarteko izango dira gaur Zubipen. Aurrenekoa, 10:30etan, kadeteen lehenengo mailakoena; eta bigarrena, 12:30etan, emakumezkoen euskal ligarena. Biek Eibar izango dute aurkari. ■

■ HERNANI ZIKLOTURISTAK

Larraulera, Zinkoeneatik

Larraulera egingo dute ibilaldia gaur Hernaniko zikloturistek. Ohi bezala, goizeko 08:30etan jarri dute zita Zinkoeneatik abiatzeko, eta handik, 40 kilometroko ibilaldia egingo dute Larraulera iritsi arte. ■

■ GOIZUETA BOSTEKOA

Errezilen kontra, finalerdia

ETB1eko *Bostekoa* herri kirolen programan parte hartzen ari da Goizueta. Finalerdia ikusi ahal izanen da gaur gaueko 22:00etatik aurrera, Errezilen kontra. Finalerako txartela jokatuko dute. ■

■ HERNANI ATLETISMOA

Entrenamenduak, bihartik

CD Hernaniko atletismo sailak jakinarazi du bihar hasiko dituztela entrenamendu-saioak. Kadete mailatik aurrerakoak eta emakumeen taldea bihar elkartuko dira 19:00etan. Infantilak hilaren 9an hasiko dira 17:45etan, eta benjamin eta alebinak, aldiz, hilaren 10ean, arratsaldeko 18:00etan. ■

ANTZIOLA, 3
943 55 17 91
HERNANI

ANTZIOLA
OKINDEGIA

OGI BERRI

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Kontxa etxeberrria 2
Astigarraga
943 12 64 24

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

19/20 ikasturtea

Bulego ordutegia: 09:30-13:30 / 16:30-19:30

Matrikula irekita irailaren 3tik 20ra

Maila guztiak: aurrez aurre eta autoikaskuntza
Moduluak: astean 2 edo 4 egun
Eta azterketak: HABE, PERFILAK, EGA, IVAP...
Titulu ofizialak: euskaltegian lortzeko aukera!

Diru laguntza handiak! Etorri galdetzeraz!

Egin gurekin bat!

HERNANIKO Udal Euskaltegia
Karabieta 63 (Ambulatorio zaharra)
HERNANI
Tel. 943 331 896
euskaltegi@hernani.eus

GAUR Giro freskoa eta goibela izango da nagusi. Behe-lainoak ugariak izango dira ia denean eta zerua oso lainotuta egongo da orokorrean. Euria ere egingo du, batez ere, arratsaldean. **Min.18° / Max.20°**

BIHAR Eguna aurrera joan ahala, eguraldia hobetuz joango da. Lainotuta hasiko da eguna, baina ostarteak gailenduz joango dira; arratsalderako giro eguzkitsua izango da. **Min.13° / Max.20°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **TENA ASTIGARRAGA** Nagusia, 16 **943 543718** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ASTIGARRAGA KULTUR ETXEKO IKASTAROAK

Hamaika aukera astigartarrek, jarduera berriei ekiteko

Urtero bezala, dantza, jostintza, pintura eta marrazketa eta bestelako ikastaroak egin ahal izango dira, herriko taldeen eskutik, horietako batzuk. Irailean zehar egin beharko da izenematea, ekintzaren arabera.

IKASTURTEARI ekingo diote ikasleek hilabete honetan, eta horrekin batera, aisialdiko ikastaroak ere martxan jarriko dira. Horien artean daude, hain zuzen, Astigarragako udalak eta herriko taldeek kulturaren bueltan antolatutakoak. Irailean zehar izango da horietan izena emateko epea.

Horien artean, AEK euskaltegiak eskaintzen dituen euskera klaseetan izena emateko aukera izango da, bihartik. Datorren astetik aurrera, aldiz, kultur etxeko ikastaroetan apuntatu ahal izango da.

Gainontzeko ikastaroetan izena emateko, taldeetara jo beharko da (ikusitaula).

Bestalde, emakume feministek antolatutako *Konfiantza indartzeko prestakuntza* ostiralean hasiko da, hilaren 6an, hain zuzen. II

2019-2020 IKASTAROAK

- **EUSKAL DANTZAK:** Astigar dantza taldearen eskutik, 7 urtetik gorako haur eta helduentzat. Izenematea: hilaren 18 eta 19an, 19:00etan elkarteen lokalean (Santio zeharbidea, Mirasol behe).
- **Euskara:** AEK euskaltegiak kultur etxean edo lokalean eskainiko du, Udalak diruz lagunduta. Izenematea: hilaren 2tik 26ra bitarte. Informazioa: 607 610 687 edo astigarraga@ae.eus.
- **Jostintza:** ostiralean, kultur etxean; Josten hasi (10:30-12:30 edo 16:00-18:00) edo Josi eta sortu maila aurreratu (18:15-20:45). Izenematea: hilaren 9tik aurrera kultur etxean.
- **Konfiantza indartzeko prestakuntza:** emakume feministen taldeak antolatuta. Hilaren 6tik 27ra 18:00etatik 20:00etara kultur etxean, eta urriaren 5ean, ikastolan. Doan. Informazioa eta izenematea: aztifemiak@gmail.com edo kultur etxean.

- **Latin dantzak:** Astelehenetan kultur etxean: hastapena, 18:30-20:00 eta maila aurreratu, 20:15-21:45. Izenematea: hilaren 9tik aurrera kultur etxean (943 335 064). Bikoteka egiten bada, hobe.
- **Pintura eta marrazketa:** Astelehenetan kultur etxean: hastapena, 18:30-20:00 eta maila aurreratu, 20:15-21:45. Izenematea: hilaren 9tik aurrera (943 335 064). Bikoteka egiten bada, hobe.
- **Txi kung:** Haritz elkartek emakumeentzat antolatuta. Astelehen eta asteazkenetan, 09:30-11:00. Izenematea: 610 202 268.
- **Yoga:** Astearte eta ostegunetan. Goizeko taldea: 09:30-11:00 (kultur etxean; arratsaldeko taldea: 17:00-18:30 (ikastolako aretoan). Izenematea: hilaren 9tik aurrera (943 335 064).
- **Zura tailatzea:** Asteazkenetan. 09:15-12:15 edo 15:30-18:30. Izenematea: hilaren 9tik aurrera kultur etxean (943 335 064).

HERNANI-EREÑOTZU 11/13 SUMARIOA

11/13 sumarioko auziperatuei elkartasuna, datorren asteburuan

Hitzaldi bana eskainiko dute Ereñotzun eta Hernanin; larunbatean izango da ekintza gehien.

IRAILAREN 16an hasiko da 11/13 sumarioko makroepaiketa, Espainiako Auzitegi Nazionalen. Terrorismo delituak egotzita, 47 pertsona auziperatu dituzte, tartean dira Herri, Etzerat, Jaiki Hadi eta Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren Bitartekaritza Taldeko kideak, baita abokatuak ere.

Aiert Larrarte hernaniarra eta Amaia Esnal urnietarra dira horietako bi. Haiei elkartasuna adierazteko, elkartasun asteburua antolatu dute Hernanin eta Ereñotzun.

Hitzaldi bana, ostegun eta ostiralean

Ostegunean emango diote ha-

siera ekintzei. Orduan, hitzaldia eskainiko dute biek Ereñotzun; 19:00etan izango da, ludotekan.

Gauza bera egingo dute ostiralean, Hernanin. 19:00etan izango da baita ere, Biterin. 20:00etan, manifestazioa egingo dute Plazatik.

Herri bazkaria, larunbatean Larunbatean izango da, aldiz, Elkartasun Eguna. Ereñotzun egingo dira ia jarduera guztiak; horien artean, Herri Bazkaria. Bertan bazkaldu nahi duenak, asteazkenera arte izango du txartelak erosteko: Ereñotzun, Irrintzi tabernan; Hernanin, Txilin; eta Goizuetan, Amaia kafetegian. II

ELKARTASUN ASTEBURUA

IRAILAREN 5A, OSTEGUNA, EREÑOTZUN.

● **19:00etan**, hitzaldia ludotekan. Hitzlariak: Amaia Esnal eta Aiert Larrarte.

IRAILAREN 6A, OSTIRALA, HERNANIN.

● **19:00etan**, hitzaldia Biterin. Hitzlariak: Amaia Esnal eta Aiert Larrarte.

● **20:00etan**, manifestazioa Plazan.

IRAILAREN 7A, LARUNBATA

● **11:00etan**, Jolasak/Kirolak. Haur eta gaztetxoentzat Ereñotzuko Futbol Zelaian.

● **12:30etan**, Kantujira, Ereñotzun barrera.

● **13:45etan**, Elkartasun argazkia, Ereñotzuko plazan.

● **14:15etan**, Herri bazkaria, Ereñotzuko frontoian.

Bazkalondoren, bertsoak, musika...

● **18:30etan**, Kronoeskalada, Hernanin.

HERNANI KANTUBAN ABESBATZA

Kantuban abesbatza gaur, Zestoako alardean

Arratsaldeko 19:00etan hasita izango da, Zestoako kiroldegian. Sarrera librea izango da.

NAHIZ eta udara izan, lanean ibili dira azkeneko asteetan Hernaniko Kantuban gazte abesbatzako kideak. Izan ere, Zestoako Txistu Alardean parte-hartzeko gonbitea jaso zuten, eta bertan izango dira, hain zuzen, gaur arratsaldean, Jagoba Astiazaranen zuzendaritzapean.

Arratsaldeko 19:00etan hasita izango da, Zestoako kiroldegian.

Idiakaitz txistulari taldeak antolatuta, haiekin batera izango dira, gonbidatu moduan, baita ere, Alex Sardui eta Xabier Saldias, baita beste hainbat musikari ere. Zestoako Itxaropena dantza taldeak ere hartuko du parte.

Hiru urtean behin antolatzen dute Zestoako Txistu Alardea 1996. urtetik. Gaurkoan, Garikoitz Mendizabal ari-tuko da zuzendari lanetan. II

HERNANI ESKU PELOTA

Pelota eskolan apuntatzeko, bihartik

CD Hernaniren pelota sailak jakinarazi du Pelota Eskolan izena eman nahi duten gaztetxoek bihartik aurrera egin ahal izango dute. 2007ra arte jaiotakoek eman ahal izango dute izena irailaren 30era arte. Astelehenetik ostegunera apuntatu ahal izango da, frontoian. Horretarako, Rufino Rekalderekin hitz egin behar da. II

GOIZUETA SAN AGUSTIN EGUNA



Herri kirolekin gozatzeko tartea ere izan zuten. Argazkia: F. Loiarde.

Goizuetarrak Artikutzan, ohiturari jarraituz

San Agustin eguna ospatu zuten, beste behin ere, goizuetarrek Artikutzan. Urtero bezala, atea ireki zituen, eta bertara hurbildu ziren festaz gozatzera. Mahaiaren bueltan kontu-kontari aritzeko tartea ere izan zuten, baita Artikutzaren argazki zaharrak ikusteko ere. Aurten bete dira 100 urte Donostiako Udalak finka erosi zuenetik. II

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)